

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
15/2010	R4/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio sustatzaileak atzera egitea</i>

## **R 4/2010 ebazpena**

### **15/2010 espedientea**

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

## **ERABAKI DU**

Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren kontra aurkeztu duen auziaren gainean, hau da, administrazio horietan lehenengoak uste du bigarrenak eskumena duela ENTIDAD, S.A. sozietateak (IFK: .....) Hidrokarburoen gaineko Zergaren 2006ko eta 2007ko ekitaldietako kuotan egindako kenkari jakin batzuk itzultzeko. Izan ere, Arbitraje Batzordean izapidetu da auzi hori, 15/2010 zenbakiko espedientean.

## **I.- AURREKARIAK**

1. Auzia Bizkaiko Foru Aldundiak azaldu zuen, 2010eko maiatzaren 17ko idazkiaren bidez, eta 2010eko maiatzaren 18an sartu zen Arbitraje Batzorde honen sarrera-erregistroan.
2. 2010eko ekainaren 1ean, akordio hau hartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendariak:

Esp.	Ebazpena		Eragindako Administrazioak		Kontzeptu
15/2010	R4/2010	20/12/2010	Estatuko Administrazioa	Bizkaiko Foru Aldundia	Administrazio sustatzaileak atzera egitea

*“Lehenengoa.- Atzera egingo da 2010eko maiatzaren 13an Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatuko Agentziarekin ipini zuen gatazkan. Gatazka hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onetsi zen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 65. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusita dagoen Arbitraje Batzordean ipini zen, ENTIDAD, S.A. erakundearen (IFZ: .....) Hidrokarburoen gaineko Zergaren 2006ko eta 2007ko ekitaldietako kuotak itzultzeko eskumena zuela uste zuelako, eztabaida eragin duen kasuari Auzitegi Gorenaren 2010eko maiatzaren 12ko epaian (300/2009 errekurtsua) azaldutako doktrina aplikatutako dakiokelako.*

*Bigarrena.- Akordio hau Zerga Politika Zerbitzuari jakinaraziko zaio, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari eta Ekonomia Itunean aurreikusita dagoen Arbitraje Batzordeari helarazteko, bai eta Zerga Administrazioko Estatuko Agentziako zuzendari nagusiari eta Zerga Kudeaketa eta Ikuskapeneko zuzendariordeei ere, jakin dezaten eta bertan ezarritakoa gauza dezaten.”*

3. 2010eko ekainaren 3ko idazkiaren bitartez (ekainaren 7ko sarrera-data dauka Arbitraje Batzorde honetan), Bizkaiko Foru Aldundiko idazkari nagusi teknikoak arestian idatzitako akordioaren berri eman zion Batzorde honi, eztabaida eragin duen kasuari Auzitegi Gorenaren 2010eko maiatzaren 12ko epaian (300/2009 errekurtsua) azaldutako doktrina aplikatutako dakiokelako.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen deialdiak, eraketa, batzarrak, ebazpenak hartzeko modua, funtzionamendu-erregimena eta prozedurari dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa beteko da.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
15/2010	R4/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Administrazio sustatzaileak atzera egitea</i>

2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak honakoa dio 91. artikuluan 2. atalean: “Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek”.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak honako hau

#### ERABAKI DU:

1. Onartu egingo da Bizkaiko Foru Aldundiak atzera egitea Administrazio horrek Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren kontra aurkeztu duen auziaren gainean, administrazio horietan lehenengoak uste duelako bigarrenak eskumena duela ENTIDAD, S.A. sozietateak (IFK: ..... ) Hidrokarburoen gaineko Zergaren 2006ko eta 2007ko ekitaldietako kuotan egindako kenkari jakin batzuk itzultzeko. Izan ere, Arbitraje Batzordean izapidetu da auzi hori, 15/2010 zenbakiko espedientean.
2. Jarduerak amaitu eta artxibatzeke aginduko da, bai eta horretarako bidalitako dokumentazio guztia itzultzeko ere.
3. Akordio hau erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio, bai eta Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari ere.